

MUNDUAREN AKABANTZA

Zerbitzari

Pantxika: berrogoi urthe
Gaxuxa: berrogoi urthe
Paxkalina: berrogoi urthe
Manana: amatxo xaharra

I

PAXKALINA: Eez dakizu berrri?
PANTXIKA: Zer da berri bada? zer da?
PAXKALINA: Manana berriz ere zernahi erranka arizan dela zure kontra.
PANTXIKA: Nun?
PAXKALINA: Beltzaeneko artho xuritzetan, eta hamazazpi lagunen atzinean eiki.
GAXUXA: Atso txarra. Lau hortz bakhar izanki hek ausikitzeko.
PANTXIKA: Eskuen zikintzea beldur ez banintz zer perakaldia har lezaken gibelaldian.
GAXUXA: Ez othe dinagu ba zerbeit gisaz ixil arazten ahal?
PAXKALINA: No, badakizue zer heldu zautan gogorat. Ilhar bat behar diogula apherilaren lehen huntan bere tzakeria bezain handia iretsarazi.
PANTXIKA: Merezi liken segurki, bainan zer iretsaraz?
PAXKALINA: Munduaren akabantza dela.
GAXUXA: Mundueren akabantza dela ez othe dun ilhar handixkoa?
PAXKALINA: Fa... errozue Herrian irakurtu duzuela, ni athe gibel hortan egonen nun, eta Herriaren errana finkatzeko betbetan sartuko. No hain xuxen huna nun heldu den, gordetzen nun.
PANTXIKA: Paxkalina horrek zazpi debru bederen baditin galkoan. Mananak ez zakin irakurtzen sinhetsiko gaitin.
GAXUXA: Ez dezagun hatik irririk egin. Hemen dinagu atso zitzila.

2

MANANA: Agur haur pollitak.
PANTXIKA: Agur amatto maitagarria.
GAXUXA: Agur herriko lili guzien ederrena.
MANANA: Zer ari zirezte bada hemen?
PANTXIKA: Denbora pasa elheketeta.
GAXUXA: Eta bazinaki zer erraiten ginuen doidoia.
MANANA: Ez araz Errepublikako presidentarekin ezkontzen zirela, eta minixtro nagusiarekin Pantxika?
PANTXIKA: Ezkontzak eta gaineratikoak burutik uzten ahal ditugu Manana zuk eta guk.
GAXUXA: Laster hil beharko dugu.
MANANA: Zer ditutzue elhe xoxo horiek?
GAXUXA: Egun dugu munduaren akhabantza.
MANANA: Ha, ha, ha, ha...
PANTXIKA: ez de hor irri e/ritekorik
MANANA: Eta nork erran dautzue hori?

PANTXIKA: Herriak.

MANANA: Paperak oro harzen ditu haurrak.

GAXUXA: Badakigu bainan oraikoan ez da dudarik.

PANTXIKA: Lafite Jaun aphezak berak errana da.

MANANA: Lafite Jaun aphazak?

GAXUXA: Eta aphezek ez dute trufarik holakoetan.

MANANA: Nehi duzue ixiltzen ziztela ene bihotzeko minaren gati bederen.

GAXUXA: Barkatu Manana, bainan zer nahi duzu, goizxago edo beranxago ethorri behar zuen guzien buruan.

PANTXIKA: Zuretzat bezan ikharagarri da guretzat, biziari oraino irriz ginauden gu, eta zu jada adinak eremana.

GAXUXA: Akhabo gure berrogoi urthe ederrak, akhabo gure osagarria, akhabo guye ametsak.

PANTXIKA: Akhabo oro, akhabo ixtantean munduarekin... bainan legea lege.

GAXUXA: Jainkoa nausi eta nahi duenean mundua lehertzen ahal.

MANANA: Oi ikharagarrien ikharagarria, bainan ez duzue nitaz trufatu nahi bederen?

PANTXIKA: Herria irakur zazu. Huna.

MANANA: Ez dakit irakurzen, dohekabea, irakur zadazu zuk.

PANTXIKA: Mundua akhabo da igandean arratsealdeko bortzak eta hamazazpietan.

MANANA: Ama maite maitea, Ama maite maitea, oren erdi baten buruan mundua akhabo, oi ene bihotz gaixoa.

Paxkalina sartzen da.

III

PAXKALINA: Manana zer duzu bihotzetzari hola lotzeko? Zer berri da?

MANANA: Berriak zuk behar dauzkidatzu eman, ene herritar guzietarik maitagarriena Egia da Herriak ekartzen duena? Mundua bortz eta hamazpietan akhabo dugula?

PAXKALINA: Ez da hor den gutieneko dudarik (*jendeari buruz ahapetlk*) zer irriak egin behar ditudan hementxe.

MANANA: Ez dela den gutieneko dudarik?

PAXKALINA: Ez amatto ez. Berzalde haxe aitortu behar dautzut, nik hori banakien atzo arratseko.

MANANA: Nundik?

PAXKALINA: Tezefak erranik.

MANANA: Tezefa eta oraiko mekenika tzar guziak ifernuko debru beltzek ereman ditzatela.

GAXUXA: Zaude trunkil, oro eremanen ditu eta tezefak eta ni, eta zu, eta zureki hainberze atxikitzen zinion gathu pollit hura?

MANANA: Ni hiruetan hogoi ta urthetan joiatea ez aski, hura sei ilabetetan joan behar ene gathua, bainan nola akhabatuko da mundua.

PAXKALINA: Huna izar buztan luze bat

GAXUXA: Buztan luze luze bat

PANTXIKA: luze luze luze bat

MANANA: oi ene bihotza

PANTXIKA: oi zure gathua

GAXUXA: zure gathu pollita

PAXKALINA: Beraz izar buztan luze luze luze luze bat jauziko da zeruan,

MANANA: oi ene bihotza

PANTXIKA: oi zure gothua

GAXUXA: zure gathu pollita

PAXKALINA: Jauzi eginen du izarrak eta mundua lehertuko du zorri bat bezala.

MANANA: ai ai ai ene bihotza

GAXUXA: zure gathu pollita

PANTXIKA: ai ai ai zure gathua

PAXKALINA: Ikusten duzu Manana maitea zer saltsa eginen dugun ixtantean?

MANANA: Ai, ai, ai, ei.

PANTXIKA: Izar buztan luzea ikusiko dinagu bedren zerutik jausten.

PAXKALINA: Batere Pantxika, gu ohartu gabe oro nahos-mahas izanen ditun. Hi, ni, gathua, tezefa, Gaxuxa, Monana eta oro, odoletan porroskotuak.

MANANA: Zaude otkoi ixilik, hilarazi behar nuzu.

PANTXIKA: Bai ikharagarri da.

GAXUXA: Ikharagarri baino ikharagarriago, ez baita gehiago botz minuta tipi baizik.

MANANA: Barka Jauna barka.

PAXKALINA: Bai barka gure bekatu guziak, eta bereziki gure mihi gaxtoenkin lagunaren kontra egin ditugunak Manana.

MANANA: Bai barka.

GAXUXA: Laur minuta.

MANANA: Hartzten dut xede zina.

PAXKALINA: Sekulan nehoren kontra gehiago ez mintzatzeko.

PANTXIKA: Agian ez.

GAXUXA: Bi minuta.

MANANA: Oi ene bihotza.

PAXKALINA: Ez dakit ez den zerbait hala emaiten baithaut, jada zerutik abiatzen izar buztan luzea.

MANANA: Ai ama, ai ama.

GAXUXA: Minuta bat, minuta tipi bat.

PAXKALINA: Heriotzearen lanbroa jada senditzen dut begitartean.

PANTXIKA: Ez dakit ez ditudan urrunerat aditzen herriko gathu guzien marrumak.

MANANA: Oi ene gathu gaixoa, nun othe dabila.

GAXUXA: Minutu erdi bat.

PAXKALINA: Ohartu gabe lehertzeko etzan gaiten zabal zabala. (*Etzaten dira lauak*).

MANANA: Nun othe da ene gathua. (*Hemen ixiltasun osoa minuta batez bederen*).

PAXKALINA: Zenbat orenak ditun Gaxuxa.

GAXUXA: Ago ixilik ez nun oraino hila.

PAXKALINA: Zenbat orenak ditun, erran

GAXUXA: (*Muntra behatuz*) Bortzak eta hemeretzi.

PAXKALINA: Iragana dun beraz tenorea, eta ez gaitun hil. Xuti Gaxuxa, xuti Pantxika, xuti Menana.

PANTXIKA: Mundua ez baita akhabatu?

MANANA: Eta ni ez bainiz hila, Herriak zakuan sartu gaitu beraz.

PAXKALINA: Ez Manana, Herriak ez gaitu zakuan sartu, ez baitu behin ere munduaren akhabantzarik egungo aiphatu.

MANANA: Hiruak nitaz trufatu zarezte beraz?

HIRUEK: Gehiagokorik merezi zuten gure kontra atheratu ditutzun elhe tzarrek, kasu emazu Manana.

PAXKALINA: Kasu zuri eta zure gathuari, brida zazu hobeki zure mihia Jainkoak ez deutzu emana pozoinaren hedatzeko, bainan ba ongiaren hedatzeko.

GAXUXA: Zure onetan ez ahantz Manana.